

## **ERABILERARIK GABEKO BURDINBIDEAK LURRALDE MAILAKO ONDARE SISTEMA GISA IKERTZEKO AZTERKETA METODO INTEGRALA: VASCO-NAVARRO BURDINBIDEA**

**Tesiaren egilea:** Arritokieta Eizaguirre Iribar

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

**Saila:** Arkitektura Saila

**Tesi-zuzendaria:** Rufino Javier Hernández Minguillón eta Lauren Etxepare Igiñiz

**Tesiaren laburpena:**

Erabilerarik gabeko milaka kilometro burdinbideren etorkizuna kolokan egonik eta gaiaren inguruko lorpen teoriko eta praktikoen arteko desadostasuna kontuan hartuz, ikerketaren helburua da burdinbideak sistema konplexu gisa ulertzeko gai den azterketa metodo integral bat sortzea, horrela, erabilerarik gabeko burdinbide batek lurraldean duen potentziala definitu ahal izateko.

Ildo horretan, azterketa-objektuaren inguruko ikuspuntu teoriko eta metodologikoak eta egungo proposamenak ikertu dira alde batetik, eta erabilerarik gabeko burdinbideek etorkizunean izan ditzaketen aukerak bestetik. Horiek kontuan harturik, erabilerarik gabeko burdinbideak garraio aktiborako ardatz gisa proposatzen dira, horretarako hiru baldintza zehaztuz: erabilerarik gabeko burdinbideak ondare-sistema konplexu gisa ulertzeko beharra; garraio aktiboko sistema gisa izan dezaketen potentziala; eta garapen jasangarria bultzatu beharra, horretarako, garraio eta lur-erabileren arteko oreka mantenduz.

Ondorioz, aurrekoetan oinarritutako eta modu berean antolatutako Azterketa Metodo Integrala sortu da. Metodoaren lehen ildoak sistemaren elementuen ezagutzan zentratzen da, erabilerarik gabeko burdinbideei ondare-sistema gisako garrantzia emanez. Bigarren eta hirugarren ildoek, aldiz, burdinbide-sistemak lurraldearen garapen jasangarriago baterako izan ditzakeen aukerak aztertzen dituzte: alde batetik, azpiegitura linealak lurraldean duen potentziala garraio-ardatz ez-motorizatu gisa eta, bestetik, nodo bakoitzaren potentziala inguruan. Lortutako emaitzek sistemaren birmoldaketarako estrategia edo gidalerro orokorrak eta aktuazio-puntu zehatzak definitzea ahalbidetzen dute.

Tesi hau ingelesez eta euskaraz aurkeztu da eta izenburu hau izan du ingelesez: *Comprehensive Analysis Method for the study of Disused Railway Lines as territorial heritage systems: the Vasco-Navarro Railway.*

